

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, maiatzaren 12koa. Onespena ematea COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari**

Osasunaren Mundu Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, COVID-19ak sortutako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiaren mailara jaso zuen, haren nazioarteko hedapenak herrien osasun publikorako arriskua baitzekarren eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen baitu. Egoera horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak sortutako osasun krisialdia kudeatzeko. Geroago, alarma egoera hori hainbat aldiz luzatu da.

Ekonomia itunean jasotzen diren zerga arloko eskumenen eremuan, Arabako Lurralde Historikoan salbuespenezko zerga erabaki sorta bat hartu da jada oraingo osasun egoera zergadunengan oro har sortzen ari den ekonomia eragin kaltegarria arintzeko asmotan. Erabaki horiek, funtsean, martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez (COVID-19aren ondoriozko premiazko zerga neurriena) hartu ziren.

Aparteko egoeraren iraupenak beharrezko egiten du bigarren erabaki sorta bat hartzea, zerga tratamendu jakin batzuk malgutu eta bizkortzera bideratua, zergadunek haien aplikazioa ahalbideratzen duten arrazoizko epeak izan ditzaten.

Malgutze neurri horiekin batera, orobat beharrezkoak diren beste batzuk hartzen dira. Hala, urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak arautzen ditu. Xedapen orokor hori indarrean jartzea 2020ko ekainaren 1erako aurreikusita dago. Momentu hauetan, beharrezkotzat jotzen da indarrean jartze hori geroagoko une batera atzeratzea.

Berraztertzeo errekurtsua edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzeko epeei dagokienez, xedatzen da ezen epea, zenbait kasutan, 2020ko ekainaren 1etik aurrera hasiko dela kontatzen, kontuan hartu gabe errekurtsu edo erreklamazioaren gaia den administrazio egintzaren jakinarazpenetik martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretu horren bidez alarma egoera deklaratu zen arte igarotako denbora.

Halaber, sortzapena aldizkakoa ez duten zergako autolikidazioak aurkezteko epeak ezartzen dira, bai eta hileroko autolikidazio jakin batzuk aurkezteko epeak ere.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

#### XEDATZEN DUT

##### **1. artikulua. Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak**

Urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak arautzen dituen, 2020ko irailaren 7an jarriko da indarrean.

## **2. artikulua. Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkezteko epea**

Hurrengo paragrafoan adierazten diren kasuetan, berraztertze errekurtsoak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko epealdi osoa 2020ko ekainaren 1etik aurrera hasiko da kontatzen.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da bai berraztertze errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteko epealdia hasita 2020ko martxoaren 14a baino lehenago bukatu ez den kasuetan, bai errekurtso edo erreklamazioaren gaia den administrazio egintza esandako egunean oraindik jakinarazi ez baina 2020ko ekainaren 1a baino lehenago jakinarazi den kasuetan.

## **3. artikulua. Aldian behin aurkezten ez diren zerga autolikidazioak aurkezteko eta ordainketa egiteko epea**

Hurrengo paragrafoan adierazten diren kasuetan, eskuarki aldian behin aurkezten ez diren eta ordainagiri bidez biltzen ez diren zerga autolikidazioak aurkezteko eta ordainketa egiteko epealdi osoa 2020ko ekainaren 1etik aurrera hasiko da kontatzen.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da bai zergaren autolikidazioa aurkezteko eta ordainketa egiteko epealdia hasita epealdi hori 2020ko martxoaren 14a baino lehenago bukatu ez den kasuetan, bai epe hori 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era bitartean kontatzen hasi den kasuetan.

## **4. artikulua. Aitorpen eta autolikidazio jakin batzuk aurkezteko eta ordainketa egiteko epeak**

Bat. 2020ko otsailari dagozkion hileko autolikidazioak aurkezteko eta ordainketa egiteko borondatezko epea 2020ko ekainaren 5era arte luzatuko da, egun hori barne dela.

Bi. 2020ko martxoari dagozkion hileko autolikidazioak aurkezteko eta ordainketa egiteko borondatezko epea 2020ko ekainaren 15era arte luzatuko da, egun hori barne dela.

Hiru. 2020ko apirilari dagozkion hileko autolikidazioak aurkezteko eta ordainketa egiteko borondatezko epea 2020ko maiatzaren 25era arte luzatuko da, egun hori barne dela.

Laugarrena. 2020ko maiatzari dagozkion hileko autolikidazioak aurkezteko eta ordainketa egiteko borondatezko epea 2020ko uztailaren 5era arte luzatuko da, egun hori barne dela.

Bosgarrena. Foru Ogasunari informazioa berehala ematearekin loturik dauden eginbeharretan eta aldizkako informazioa emateko antzeko eginbeharrei buruz, 2020ko ekainaren 30ean egunean egon beharko da.

## **5. artikulua. Zerga zorren ezohiko zatikatzea**

Martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak (COVID-19aren ondoriozko premiazko zerga neurriena) 5. artikuluan xedatutakoa zerga premiazko araugintzako dekretu honen 4. artikuluan aipatu diren autolikidazioetatik sortutako zerga zorrei ere aplikatuko zaie baldin eta autolikidazio egokia aurkeztu eta 2020ko ekainaren 1a baino lehen eskatzen bada zatikatzea.

## **6. artikulua. COVID-19 pandemiarengatik gizarte aurreikuspen osagarriko eskubide sendotuen erabilgarritasuneko zerga araubidea**

Bat. Zergadunek erabiltzen badituzte gizarte aurreikuspen osagarriko tresnetako eskubide sendotuak, dagokien araudiak horretarako aukera emanda, artikulua honetan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute.

Bi. Aurreko apartatuan aipatu den zergaduna kasu hauetakoren batean egon beharko da:

a. Legez langabezian egotea COVID-19ak ekarri duen osasun krisialditik sortutako enplegu-erregulazioko espediente baten edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz.

b. Establezimendu baten titularra den enpresaburua, hark jendeari irekita egoteari utzi badio martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioz.

c. Alarma egoera deklaratu zen egunean Gizarte Segurantzako erregimen batean sartuta zeuden norberaren konturako langileak, beren jarduera etenda geratu bada COVID-19ak ekarri duen osasun krisialdiaren ondorioz.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoari jarraituz, gizarte aurreikuspen osagarriko tresna guztietatik zergadunak erabil ditzakeen eskubide sendotuen zenbatekoa, ezin daiteke izan 6.000 euro baino handiagoa.

Lau. Artikulu honetan xedatutakoari jarraituz erabili diren eskubide sendotuen zenbatekoak, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 18. artikuluko a) letran adierazten dituen gizarte aurreikuspen osagarriko prestazioetarako ezarritako zerga tratamendua izango du, ondoko berezitasun hauekin:

a. Jasotako zenbatekoaren ehuneko 60 integratuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zerga oinarri orokorrean.

b. Zenbateko hori jasotzeak ez du inola ere aldatzen azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 19. artikuluan eta bat datozenetan xedatutakoa.

Bost. Artikulu honetan adierazten den araubidea aplikatzeko, beharrezkoa izango da 2019ko zergaldian zergadunak ez jasotzea 6.000 euro edo gehiago kapital higigarriaren etekin moduan. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 33. artikuluan adierazten du zeintzuk diren etekin horiek.

Sei. Artikulu honetan xedatutakoa 2020ko uztailaren 1a baino lehen eskatutako eta 2020ko abuztuaren 31 baino lehen ordaindutako diru kopuruei aplikatuko zaie.

Zazpi. Artikulu honetan adierazten diren eskubide sendotuak ordaintzen dituzten entitateek horren berri eman beharko diote Foru Aldundiari, informazioa ematera behartzen dituzten kontingentzien ondoriozko prestazioak ordaintzen dituztenean bezalaxe, eta informazio berbera emanez.

#### **7. artikulua. Zerga zorren ezohiko zatikatzea**

Bat. Martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak (COVID-19aren ondoriozko premiazko zerga neurriena) 5. artikuluan aipatzen duen zerga zorren ezohiko zatikatzea, ondoko eskumen eremu honen arabera ebatziko da:

– Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuaren buruak, zerga zorra 10.000 euro baino gutxiago baldin bada.

– Ogasun zuzendariak, zerga zorra 10.000 euro eta 50.000 euro bitartean baldin badago, kopuru hori barne dela.

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, zerga zorra 50.000 euro baino handiago baldin bada.

Bi. Baimena ematen zaio Ogasun Sailari bidezko zatikatze jotzen dituen neurriak har ditzan, zerga zor zatikatuen kontrol egokia murriztu gabe, adierazi den ezohiko zatikatzea bizkorrago erabaki ahal izateko.

#### **8. artikulua. Europako epe luzerako zenbait inbertsio funts zerga ondorioetarako karakterizatzeko aparteko neurriak**

Lehenengoa. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak.

Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak (Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatu zituen) 10. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin loturik, luzatu egiten dira ondoko epe hauek:

Bat. Maileguen gehieneko gabezia aldia, esandako foru arauaren 10. artikuluko c) letran aipatzen dena, 2 urte izan daiteke haiek 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean eman baldin badira.

Bi. Beste urtebetetz luzatzen da berrikuntza bultzatzeko Europako funtsek hartzen dituzten funtsak maileguak emateko erabil ditzaten dagoen urtebeteko gehieneko epea, 10. artikuluko azken paragrafoan adierazten dena, haietako partaideek ekarpena ordaintzen dutenetik aurrera, baldin eta gehieneko epe hori 2020an amaitzen bada.

Bigarrena. Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsak.

Beste urtebetetz luzatzen da jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsek hartzen dituzten funtsak maileguak emateko edo partaidetzako entitateen kapitalerako edo funts berekietarako ekarpenak ordaintzeko erabil ditzaten dagoen urtebeteko gehieneko epea, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak (Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatu zituen) 11. artikuluko azken paragrafoan adierazten duena, haietako partaideek ekarpena ordaintzen dutenetik aurrera, baldin eta gehieneko epe hori 2020an amaitzen bada.

Hirugarrena. Ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsak.

Beste urtebetetz luzatzen da ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsek hartzen dituzten funtsak aktibo finkoak eskuratzeko eta haiek alokatzeko erabil ditzaten dagoen urtebeteko gehieneko epea, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak (Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatu zituen) 12. artikuluko azken paragrafoan adierazten duena, haietako partaideek ekarpena ordaintzen dutenetik aurrera, baldin eta gehieneko epe hori 2020an amaitzen bada.

### **9. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbait zerga tratamendu malgutzeko aparteko neurriak**

Lehenengoa. Ohiko etxebizitza erosteko kontuetan sartutako diru kopuruak gauzatzeko epearen luzapena.

Kontuen epea, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 87. artikuluko 5. apartatuko b) letran adierazten duena, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada, sartutako diru kopuruak ohiko etxebizitzaren erosketan edo birgaitzean gauzatzeari ekiteko epea zazpi urte izango da, kontua ireki zen egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan adierazten den epe luzapenean etxebizitza-kontuan sartutako diru kopuruek eskubidea emango dute azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 87. artikuluan ezarritako kenkaria egiteko, betetzen baldin badira artikuluko horretan eta dagokion erregelamenduzko garapenean ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Eraikitzen ari den ohiko etxebizitza erosteko epearen luzapena.

Zergadunek zuzenean ordaintzen badituzte etxebizitza eraikitze obrak egiteak sortutako gastuak, edo konturako diru kopuruak ematen badizkiote haren sustatzaileari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 62. artikuluko 1. apartatuko b) letran adierazten duen lau urteko epea 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada, epe hori bost urtera luzatuko da, inbertsioaren hasieratik aurrera.

Hirugarrena. Berrinbertitzeko epearen luzapena, ohiko etxebizitza eskualdatzen den kasuetan.

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 49. artikuluan ezartzen duen berrinbertitzeagatik salbuespenaz baliatzean, ohiko etxebizitza besterentzetik lortutako zenbatekoen berrinbertsioa gauzatzeko epea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 46. artikuluko 2. apartatuan adierazten duena, hiru urte izango da.

Aurreko paragrafoan adierazi den epe luzapena aplikatuko da ohiko etxebizitza 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean eskualdatzen den kasuetan eta ohiko etxebizitza bat 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean erosi eta ondoren aurreko ohiko etxebizitza eskualdatzen denetan.

Laugarrena. Ohiko etxebizitza benetan eta etengabe okupatzeko epea.

Ohiko etxebizitza benetan eta etengabe okupatzeko hamabi hilabeteko epea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 61. artikuluko 2. apartatuan adierazten duena, sei hilabetez luzatuko da epe hori 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada.

Hamabi hilabeteko epe hori, gehi aurreko paragrafoan adierazten den sei hilabeteko luzapena, eresketa egunetik edo obrak bukatzen diren egunetik aurrera kontatuko da.

Bosgarrena. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua, ondare irabazi salbuetsi jakin batzuk direla eta.

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 42. artikuluko b) eta c) letretan eta 49. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko ez beste ezertarako, zergadunak bere ohiko etxebizitza eskualdatzen duela iritziko da eraikina momentu horretan haren ohiko etxebizitza bada edo eskualdatze dataren aurreko hiru urteetako edozein egunera arte izan bada.

Aurreko paragrafoan adierazten den epe luzapena, eraikinak arau orokorren arabera 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean ohikoa izateari utzi dion kasuetan bakarrik aplikatuko da, eta betiere 9. artikuluko honetako hirugarren apartatuko bigarren paragrafoan ezarritako aplikazio aldiaren barruan, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 49. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzeko bada.

Seigarrena. Kenkaria langileek entitateak eratzeagatik.

Langileek entitateak eratzeagatik kenkaria, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) 90. quater artikuluan arautzen duena, aplikatzeko, eta entitateak 2019ko irailaren 15etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean eratu diren kasuetarako, ondoren adierazten diren epeak urtebetekoak izango dira, haien eraketatik aurrera.

a. Harpidetzaren xedea entitatearen eraketa dela iritzeko epea, 90. quater artikuluko horretako 2. apartatuko a) letran ezarria.

b. Zergadunek entitatean langile bezala zerbitzu egiten hasteko epea, 90. quater artikuluko horretako 2. apartatuko e) letran ezarria.

c. 90. quater artikuluko horretako 2. apartatuko azken paragrafoan ezarritako epea, zeinean ez baita eskatzen langile guztiek 2. apartatu horretako g) letran ezarritako baldintza betetzea.

d. 90. quater artikuluko horretako 3. apartatuko azken paragrafoan ezarritako epea, zeinean ez baita eskatzen langile bezala zerbitzu egitea.

#### **10. artikulua. Sozietateen errentaren gaineko zergan zenbait zerga tratamendu malgutzeko aparteko neurriak**

Lehenengoa. Amortizatzeko askatasuna eta amortizazio azeleratua eraikitzen ari diren ibilgetuaren elementuetarako.

2020an amaitzen bada obra gauzatzeko kontratu baten bidez enkargatu diren ibilgetuaren elementuak eskura ipintzeko hamabi hilabeteko epea, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 21. artikuluko 1. apartatuko b) letran eta 2. apartatuan adierazten duena, epe hori hamabi hilabetez luzatuko da.

Bigarrena. Aparteko mozkinak berrinbertitzea.

Bat. Ondare elementua entregatzen edo eskura jartzen den dataren ondorengo hiru urteko berrinbertsio epeak, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 36. artikuluko 1. apartatua eta 38. artikuluko 1. apartatua adierazten dituenak, urtebetez luzatuko dira epe hura 2020an amaitzen baldin bada.

Bi. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 36. artikuluko 4. apartatuko bigarren paragrafoan adierazten duen hiru hilabeteko berrinbertsio epea sei hilabetez luzatuko da epe hura 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen baldin bada.

Hiru. Berrinbertsio epea bost urtera luzatzea, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 116. artikuluko 5. apartatua adierazten duena, urtebete gehiagokoa izango da luzapen hura 2020an amaitzen baldin bada.

Hirugarrena. Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia.

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 53.2 artikuluan adierazten duen hiru urteko gehieneko epea, ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba berezia hornituta dagoen diru kopuruak artikuluko hartan jasotzen diren helburuetako batera bideratzekoa, urtebetez luzatuko da 2020an amaitzen baldin bada.

Zergaduna aurreko paragrafoan adierazi den gehieneko epearen luzapenez baliatzen baldin bada, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 53. artikuluko 4. apartatua xedatutakoaren arabera ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba bereziko saldoa erabili ezin duen epealdia, halaber, urtebetez luzatuko da.

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 53. artikuluko 2. apartatuko c) letran jasotzen dituen helburuetara bideratu nahi badu zergadunak ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba bereziko saldo osoa edo haren parte bat, zerga administrazioari komunikazio bat aurkeztu beharko dio, egutegi aldaketa eta horren arrazoiak jakinarazten dituena.

Laugarrena. Ikerketa eta garapenerako proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

Ondoko erregela berezi hau ezartzen dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 64. bis artikuluan xedatutakoa aplikatzeko:

1. 2020ko ekitaldian hasitako ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikorako proiektuak finantzatzeko kontratuak, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 64. bis artikuluko 2. apartatua adierazten dituenak, delako proiektua gauzatzeko hasi baino lehenago formalizatu beharko dira, baina orobat haiek gauzatzeko hasi eta lehenengo bederatzita hilabetean formaliza daitezke baldin eta gauzatzeko hasi baino lehenago eskatu bada Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 64. bis artikuluko 7. apartatua aipatzen den txostena eta ez bada bukatu aitortpena egiteko borondatezko aldia. 2. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 64. bis artikuluko 2. apartatua xedatutakoa gorabehera, foru arau horren 64. bis artikuluan xedatutakoa aplikatzekoa izango zaie finantzatzeko kontratua izenpetu baino lehenago gauzatzeko hasi diren urte anitzeko ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikorako proiektuei, baldin eta 2020ko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldiko lehenengo bederatzita hilabetean sinatzen bada delako proiektua.

3. 2020an abian dauden ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikorako proiektuak finantzatzeko kontratuak aldatu ahal izango dira ordainketen eta gastu eta inbertsioen egutegia birmoldatzeko. Aldaketa hori komunikazio osagarri baten bidez aurkeztu beharko zaio zerga administrazioari hura formalizatu eta hurrengo hiru hilabetean, eta betiere 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

4. Aparteko izaeraz, onargarria izango da ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikorako proiektu bat finantzatzeko kontratu formalizatueta parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzea, baldin eta 2020ko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldiko lehenengo bederatzi hilabetean egiten bada subrogazioa.

Bosgarrena. Birjartze epea, kenkari jakin batzuen aplikaziorako.

Kenkariaren gaia den inbertsioa gauzatzen den aktibo finkoak birjartzeko hiru hilabeteko epea, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 67. artikuluko 5. apartatuko bigarren paragrafoan adierazten duena, sei hilabetez luzatuko da 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen baldin bada epe hura.

Seigarrena. Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia.

Mozkinak nibelatzeko erreserba bereziari loturiko zerga oinarria kendutako zenbatekoekin gehitzeko bost urteko gehieneko epea, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 52. artikuluko 2. apartatuan aipatzen duena, zergaldi batez luzatuko da 2020an amaitzen baldin bada epe hura.

Zergaduna aurreko paragrafoan adierazi den epe luzapenez baliatzen baldin bada, aipatutako 52. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera erreserba bereziko saldoa erabili ezin duen epealdia, halaber, zergaldi batez luzatuko da.

#### **11. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan zerga tratamendu jakin bat malgutzeko aparteko neurria**

Martxoaren 31ko 11/2013 Foru Arauak (ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena) 43. artikuluko Bat apartatuko c) letran adierazten duen karga tasa aplikatzeari begira, sei hilabetez luzatzen da c) letra horretako 2 zenbakian jasotzen den baldintza betetzen dela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko hamabi hilabeteko epea, etxebizitza eskuratzen den unetik aurrera, baldin eta epe hori 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada.

#### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta haren testuan espresuki ezarritako ondorioak izango ditu, hala adierazitako kasuetan.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaie zerga premiazko araugintzako dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie, indarreko araudiaren arabera izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 12a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**